

## **Nafarroako Esaera Zaharrak. Goizueta.**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra  
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence  
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra  
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## Nafarroako Esaera Zaharrak. Goizueta.

- 855 *Aberatsa izan banintz, Don Tío Paco: ta pobrea naizelako, herrero: ta herrero goiti ta beiti.*
- 856 *Adiur onekoa da ori!!*  
Bere buruari baizik begiratzen ez diona.
- 857 *Altza(re)n zañetik, altza.*  
Nolako gurasoak, alako umeak.
- 858 *Aierrak nago.*  
Zerbait egiteko edo eskuratzeko gogo bizitan nago.
- 859 *Akerraren adarra baño okerragoa.*
- 860 *Ardi aulak, amets asko.*  
Duen baño geixego nai lukeanak ere bai.
- 861 *Arkume(r)ik ederrena zintzarri gabe.*  
Geien merezi lukena, sari gabe.
- 862 *Atso zipristiñe, erristarako fiñe.*
- 863 *Aurrak azi, ta neke(a)k bizi.*
- 864 *Baztanen etxe-alde asko? galdetu baztandarrari, eta onek erantzun: Zenbat etxeko andre on, ainbertze etxe-alde on.*
- 865 *Bearrak erakusten du zer ta nola egin.*
- 866 *Bein ere ez dena, bein gertatzea naiko.*
- 867 *Berezkoa, txalin-kirtena.*  
Berez deus balio ez duena.
- 868 *Bizitzen utziko ez digute, ta illen ez gaa (gera).*  
Nekez asperturik zegoenak esana.
- 869 *Buruen orde, anak pagatu bear.*  
Buru gutxi duenak, alper joan-etorriak egin bear.
- 870 *Dene(a)n bonbon, ez denen egon.*

- 871 *Dene(a)n dentxoa, nere gizontxoa. -Al denen al dana, nere andre baldana*  
Dentxoa = den gutxia, den pixka.
- 872 *Deus ez den toki(a)n eskuak garbi; deus den tokin eskuak zikin.*  
Lapurrak eta.
- 873 *Egun on, berri on, bizitz(a) on, eta eiotz(a) on.*
- 874 *El que hace saiatu, ya hace billatu.*
- 875 *Elur-urtea, arto-urtea.*
- 876 *Erio-suar yoan da.*  
Burua nasirik bezela.
- 877 *Ez yoan t'ez etorri.*
- 878 *Ez da ari onekoa gizon ori.*  
Setatsua da.
- 879 *Etxeko sua etxeko autsaz estali.*  
Etxeko goraberak eta kontuak ez dire kanpora, agertu bear. Toki askotako esaera. Oiehenart-ena ere bai (170).
- 880 *Ez du orrek itturri txarra!*  
Iztun ona dela esateko; eta bai irabazbide aundia duela adiarazteko ere.
- 881 *Goizian purru-salda, ta eguerdian azak; aixe kabitzen naute ipurdiko galtzak.*
- 882 *Gu beartuko bagiñake, itsasoa agortuko litzake.*
- 883 *Gustoko leku(a)n, aldaparik ez.*  
Beste leku askotan ere ola esaten.
- 884 *Il da mandoa? yoan da errabia.*  
Erderaz gauza bera zakurraz esaten da.
- 885 *Illa alderago, eta ezkilli miñago.*  
Illaren gorputza elizara ekartzean, ezkilli jotzen zen; asieran dan dan bakanka, elizara urbiltzean, dandarak maizago eta miñago. Ortik esaera ori.
- 886 *Illa lurrari eta bizia maiari.*  
Erderaz ere bada olatsuko esaera. Oihenart-ek: "Hila lupera, eta biziak asera" (236).

- 887 *Illak puztutzeko modukoa zegok.*  
Salda eta ardoa, oso onak diranean.
- 888 *Illunabartzean, eguzkia etxedin ertzean, eta neskatxa etxean.*  
Ori zen gure aurrekoen oitura ederra.
- 889 *Itxuraz ona, ta barrena ustela.*  
Ola sagarrak, eta bai zenbait kristau ere.
- 890 *Yoan arteñoko onik ez, eta itzuli arte pakerik ez.*
- 891 *Yostaketa luzeak, azkeneko gauza onik ez.*  
Ori gertatzen askotan.
- 892 *Yostartza (jostorratza) baño aria luzeago bear.*  
Batak besteakin eramapena izan bear, eta bai amak umekin ere. Oihenart-ek:  
"Orratzak bano hariak luzeago behar du izan" (703).
- 893 *Kanpoko zakurra beti zapatakin.*  
Kanpokoabe iduritzen.
- 894 *Laster egingo ttik (dizkik) orrek autsi-urratuak.*  
Laster bukatuko du eskuartean daukan egitekoa.
- 895 *Lau anka ta bi belarri: karga aundia ezin ekarri.*
- 896 *Ler egiñik nago. Ler gaiztoa eragin dit.*
- 897 *Lo dagona esnaraziko dik orrek.*  
Bere oiuz edo tankera txarrez.
- 898 *Mitxekoko Pello arraultz-koxkor yale: yan ta klik! gezurra diok ik.*
- 899 *Nik ate aña, onek ainbat maratil.*  
Aitzeki-maitzeki dabillenaz.
- 900 *Nik ez diat oientzat lanik. -Lan gutxi aski ditek oiek!*
- 901 *Nolako Perutxo, alako Maritxo.*
- 902 *Nola etorri, ala yoan.*
- 903 *Norbaitek burua berotu dio.*  
Konseju txarren bat eman dio.

- 904 *Norbaitek erregua egin dio.*  
Biraoa, maldizioa bota dio.
- 905 *Nor bere denborako, arbi errea abenduko.*  
Olatsu beste leku ta izkuntzetan.
- 906 *Oiartzun: pareta zarrak erantzun.*
- 907 *Ollarra bere lurreean sendo.*  
Nork bere etxean agintzen, nagusi.
- 908 *Oltzari gurutze!*  
Ori esaten diote, etxe zarra utzi ta berri batera aldatzen denari.
- 909 *Oñezkorik izan nai ez, eta zaldizkorik ez elduki.*  
Olatsu toki askotan.
- 910 *Oraintxe gelditu naiz ez zeru ta ez lur.*  
Guzi guzia galdurik.
- 911 *Otsoak aragi samurra nai.*
- 912 *Otsondoko katua Parolan eiztari: erne begi(ra)tzen dio leioko gaztari.*  
Otsondo ta Parola bi etxe ziren.
- 913 *San Andres, entra el mes: goizean azaroa, ta gauean abendua.*  
San Andres azaroaren 30'ean da, eta biaramonean abendua asten.
- 914 *San Jose-ren loreak (elurra), atzekoak baño aurrekoak obeak.*  
Elurra aurretik atzetik baño obe dela.
- 915 *Xoxo(a)k bele(a)ri: epur beltz!*
- 916 *Urrutiko matsak, beti bete(a)k.*  
Onen antzeko esaera asko badire.
- 917 *Zakur saunkaria, ez ozkaria.*  
Beste leku ta izkuntzetan ere berdin.
- 918 *Zakurra ta katua beti burrukan.*
- 919 *Zein da nere kontrarioa? nere ofiziokoa.*  
Erderatik artua dirudi. Oihenart-ek: "Unhaia aiher unhaiari (451) = un vacher veut mal à l'autre". Eta gauza bera adiarazteko beste au ere bai: "Lankide, gaizkide" (526). Eta beste au: "Arrotza, bekaitz arrotzaren" (36).

